Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

804

EBAZPENA, 2010eko urtarrilaren 19koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, berdintasunaren aldeko 2009ko Emakunde Saria nori eman ebazten duena.

2009ko abuztuaren 12ko Ebazpenaren bidez, Berdintasunaren aldeko 2009ko Emakunde Sarirako deialdia egin zen.

2009ko abenduaren 1eko Ebazpenaren bidez izendatutako epaimahaiak saria emateko egindako proposamena ikusita, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lilaton Taldeari ematea Berdintasunaren aldeko 2009ko Emakunde Saria, Lilaton Proiektua, Donostian emakumeek normalean martxoko lehenengo igandean egiten duten lasterketa herrikoia, hogei urtez etenik gabe egiteagatik eta horri eusteagatik.

Lilaton Taldeak egiten duen oinarrizko elkartelana, eta emakumeentzat antolatzen duen lasterketa herrikoiaren bidez emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburuan duen inplikazioa baloratu ditu epaimahaiak. Bereziki azpimarratzekoa da elkarteak egiten duen sustapen-lana: emakumeek kirola egiteko, emakumeak ahalduntzeko, emakumeen osasunerako, Lilaton proiektuak Gipuzkoako herrietan sortzen duen elkarte-ehuna dinamizatzeko eta lasterketa herrikoian hainbat adinetako emakumeek parte hartzeko. Saritutako alorra kirolaren ingurukoa izatea ere garrantzitsua da, genero-aldea gehien nabaritzen den eremuetako bat denez gero. Nabarmentzekoa da, halaber, 2009ko urtean izena eman zuten emakumeen kopurua, 1.264, eta antolakuntza-lanetan aritu ziren emakumeena, 80.

Bigarrena.– Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Beraz, ebazpenaren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke organo berari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzierrekurtsoa aurkez daiteke, dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, hil biko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 19a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

804

RESOLUCIÓN de 19 de enero de 2010, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se resuelve la concesión del Premio Emakunde a la Igualdad para el año 2009.

Mediante Resolución de 12 de agosto de 2009 se convocó el Premio Emakunde a la Igualdad para el año 2009.

A la vista de la propuesta de concesión realizada por el Jurado designado al efecto mediante Resolución de 1 de diciembre de 2009,

RESUELVO:

Primero.– Conceder a Lilaton Taldea el Premio Emakunde a la Igualdad para el año 2009, por la realización y mantenimiento durante veinte años ininterrumpidos del Proyecto Lilaton, la carrera popular femenina que se celebra en Donostia-San Sebastián, generalmente el primer domingo de marzo.

El Jurado ha valorado el trabajo asociativo de base que lleva a cabo Lilaton Taldea y su implicación en el objetivo de la igualdad de mujeres y hombres, a través de la carrera popular femenina que realiza. Se subraya de forma especial el trabajo de esta Asociación en pos del impulso de la participación de las mujeres en el deporte, de su empoderamiento, de su salud, de la dinamización del tejido asociativo de mujeres que el proyecto Lilaton genera en los pueblos de Gipuzkoa y de la participación de mujeres diferentes edades en la carrera popular. Se señala además el interés de que el campo premiado guarde relación con el deporte, en tanto es uno de los ámbitos en que se visualiza una mayor brecha de género. Se destaca que en la edición de 2009, el número de mujeres inscritas ascendió a 1.264; y el de mujeres que colaboraron en la organización, a 80.

Segundo.– Contra la presente Resolución que agota la vía administrativa podrá interponerse recurso potestativo de Reposición ante el mismo Órgano en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco; o bien, recurso contencioso-administrativo ante el juzgado de lo Contencioso-Administrativo correspondiente, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de enero de 2010.

La Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.